

# Euskararen egoeraz

**Jose Luis Alvarez Enparntza 'Txillardegi'**

Idazlea

**L**ehendabizi hau kontutan hartu beharra: Euskal Herri osoan gertatzen ari dena behar dela, eskualdeez eskualde, alorrez alor. Bestela, irizpide faltsuak moldatuko ditugula. Eta, jakina, ni izaritan egin behar da ikerketa. Alde batetik, «corpus»-aren egoera, eta besteetik, «status»-aren egoera. «Corpus»-ari dagokionez, gure hizkuntzak urrats handiak egin ditu azkeneko urte hauetan. Nahiz hizkuntza mintzatuari dagokio-

nez, oraindik makal agertu. Euskaltzaindia bera, bide desegoki bat eman beldur, ez da Ortoepia egoki bat proposatzen ausartzen. Hots, arazo larria da, batez ere, azentuikeraren alorrean. Auzoko bi hizkuntzen eraginez, interferentziak gero eta sarkorragoak dira; bai Iparraldean, baita Hegoaldean ere. Baina, noski, eman beharreko urratsak, ikerketa xehea eskatzen du. Eta honek egin-kizun pisua dakar. Euskal irratiek eta telebistek eragin handia dute eskualde gizarrean. Eta, askotan, moden eraginez, ahoskera erdaldunduak eskaintzen dituzte. Halaz ere, «corpus»-aren egoera ez da arazo nagusia.

Arazo nagusia, hain zuzen, «status»-aren mailakoa

da. Hasteke, Nafarroa Garaiko agintariek, mespretxuz, gorrotz, jokatzeko dute «lingua navarrorum»-dena, nafartarren hizkuntza, honetxean aurka. Eta hirurik «Provincia Vascongetan»-ere, oraingo agintariak gehiegitan atxandue, arrotz, euskal mundua ezagutu ere egin ez dutelako. Bestetik ideia faltsuak hedatzen dira. Esate baterako, sozialki euskarak daukan egoera txarra, gu eskaldunon errua dela. Gure «utzikeria» dela gakoa. Halaz ere, datu soziolingüistikoek garbi erakusten dutenez, euskara ezin erabiltzearen arrazoiak erdaldun egibakarren errua dela. Beren inguruan, abertzaile omen direnek (edo areago, kolore guttiak unionistek) espainiera

eta frantsesa inposatzen ditugulako. Oraindik batzuk harritu egin dira erabilpenaren kota ezagueraren baimo apalagoa dela ikusteaz. Hots, matematikoki gizarite elebidunetan hori gertatzen da. Bestalde, non dago «eskubide pertsonalen» bidez bere hazkundera lortu duen hizkuntza minorizatutik? Eta hori teoriarik bakarrik. Zeren eta Iparraldean eta Nafarroa Garaiko eskualde zabaletan, ez baitago legezko «eskubide pertsonal»-ik ere.

Halere badakigu, edo jakin egin behar genuke, hirur faktore markatzen dituztela euskararen mugak:

1 - Ezaguera maila minimotik behera, ezinezkoa dela euskarak beharrezko maila lortzea. Ale-

gia, erdaldun elebakarren maila jaitzi behar dela, derrigorrez. Eta horrek prezio politikoak duela.

2 - Ez dela egia, faltsua dela, euskaldunon leialtasuna txikia dela. Estatistikek eta kalkuluek erakusten dute hori. Euskaldunok, ahal dugunean, maiz erabiltzen dugu euskara geure artean.

3 - Euskaldunon kontzentrazio geografikoa (hau da, gizarite anisotropia) gutiz beharrezkoa dela erabilpenaren kota jasotzeko. Nahiz honek, berriz ere, prezio politikoak izan. Euskararen bakartasuna, edo nagusitasuna, lortzeak ondorio politikoak izango ditu. Eta badakigu, Belaxkeriak ez daramate inora kasu hauetan. Egia ikusi behar da, eta garbiki esan herriari: politikari maitzurrik eta ezjakinak salatu.

Horror hori, labur laburki, euskararen egoeraz nik azpimarratuko nituzkeen puntuak.

## Eskutitzak Xabier Leteri

**Astebete joan da Xabier Leteri hil zenetik. Haren heriotzak minduta, hainbat gutun iritsi dira. Lagin bat baino ez da honako hau:**

### Eskeronez, Xabier

BERRA ireki eta Xabier Leteren heriotza jakin dudanean sentituta dut norbait garrantzitsu hil zaidala eta eskerrak eman dizkiod. Eskerrik Ez Dok Amairu egitasmo amets eder eginagatik. Egoera penagarrian euskaldun izatearen gogoarekiko atxikimendu askatzailearen eztanda probokatu zenuten.

Eta eskerrak eskaini dizkidazu (guzun) sakontasunez eta edertasunez beteriko hainbat eta hainbat hambitxirengatik. Bat-batean buru-bihotzera etorri zaitzidanak botako ditut.

«Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, bainan non biziko naiz zuegandik aparte». Garai hartako berbenetan adone gutiz kantadantzatzatzen guren askatasunaren lehen izpia. Milurteko jarraunspenaren oinordekoak gara. Euskararen Herriaren ondorengoak. Gure esku balioetsi edo ez; gure esku onartu. Eta onartu duguna ezagutu, bere handitasun eta miseriekin, idealizatu gabe, eta aukeratu eta gutu, hau da gaurkotuz bersortu eta jaso. Gure garaletan euskaratik giza-dira haziz, hitz sendagarria eman eta zabalduz.

Errekamari eta Mateo Txistu. Zenbat aldiz ez genitzion geure alabari bipuin horiek kontatu lotarakoan! [...]

«Adiskide bat bazen... hitzen lihoa iruten bere barnean irauten». Xabier ere horretan ibiliren. Herri euskaldun artzain, nekazari, pobreaken hitzak, pikardak, bertsoak, kantak jasotzen. Bi adieran: estimuan eskuz har-

tzen eta jasotzen duzu; eta eskuz jaso, altxatzen duzu baietion gorenara. [...]

Orduen liburua... Luxuzko oparia. *Egungentziaren esku izoztuak* beren gainera erori aurretik Rainer Maria Rilke ekarri zuen Xabier Leteri euskal mundura.

Joseba Barriola.

### Egungentziaren aleizoztutik, Xabier

«Solasean aritu ginere/ eta begiak erabat jaso gabe/ galdetu zenidan/ zer ote da etemitea/ bai al legoke iraunkortasunik haien zatit/. Baina nik ez nekien/ eta arratsaldeari begira/ erantzun nizu/ etemitea gugaan legokeela/ gu ginela hildakoen betikotasuna/ gaueko neguetan/ izaretan leudekeela haien arimak/ hain distiratsu, hain urrun/ gu haien lurralderuntz goazenean/ galderak beharrezkoak ez diren/ erresuma bakesuetara».

Kaixo, Xabier:

*Egungentziaren esku izoztuak* liburutik aukeratu berridudan pasarteak izan da horrakoxea, nahigabeak eraman nauena, ez nahita, nahigabe, barruak berak beratu aukeratu balu bezala, auskalo zergatik. Solasaren begiak atsegin dituen batek, ziur-danik, hartzaile samure eta abegikor zenuen emaztea falan botatzen zenuen, hain da mugatua eta laburra izateak eskaintzen duen arnasa. Arnasa horrek eutsi zintuen, nola edo hala, taupaka izate honetan, eta honela, apurka, apurka idatziz, zure eskuen

trebeziak, adimenaren dotoreziak, bihotzaren ezti-ozpinez ehotutako hitz samurez, hain zenuen gertuko eta handi Lurdes denaren, ez zeneren, itzala goratu zenuen, eta goratzen duzu, Maitasunez, hitz larritz idatziz behar genukeen sentimenduz menez, ginez eraman zure ezina, eta hala eskaini zenizkigun goran aipaturiko ahapaldi horiek bezala: kontuak, kontuak, iriak eta lantuak, nekeak eta pozak, herri bati garaxi bortitzean giza-abere kolpatu baten bertsoak, sentitzen zenuena abestuz, abesten zenuena sentituz, abestia, hitza, bizitza honi, haserrez eta atseginez, zor zaion gutzia lagunekin, etxekoekin, herriekin, gerturatzen zitzaizkizun gutziekin biziz eta partekatuz.

Arratsaldeari begira gaude, guk etemitea gugaan dagoela pentsatzen dugu, gu gara, Maitasunaren bidez, indar amultsu eta hurbil horren bitartez, oroitzeaz gain, memoriararen atetik betikotasunaren lautadara gureak eta maitatzen genituenak gertuagotzen ditugunak. Sentimendu ezti horrek, Maitasunak, garamatza, benetan, zurekiko eta maite ditugunekiko, joanak badira ere, hurbilagozko aukera bikaina eskaintzen diguna, haiekiko eta gurekiko bidetska ikusteina, baina ikusezina den sentimendu egiazko horrek ederrak, sentiberak diren hitzak esatera eramaten gaituena, horretan dihardugu, horretan jarraitu gura genuke. Zergatik? Beharbada, ondo esan zenuen eta esaten diharduzun bezala, izaretan dauden arimak izatera

jaiok gareliko, jaioz IZATEN gareliko, eta ziurdanik, IZANEZ, gerora IZARTZEN garen argiak gareliko.

IZATE hau bizitza duzu, Xabier, IZARTE, IZARTEGI berri horretan zure benetako izana aurki dezazula, bakean, bakezko betean, maite dituzunekin, Lurdesekin, Mikelekin, Jesusekin, Jean Paulekin, Luis Marirekin eta hainbat etxekorekin, lagunekin, ez adio Xabier, biniloak, liburuak beza zure orotza lurrean zabaldu eta izarrei begira gaudela gogoratuko gara zutaz eta goratuko dugu hitzez, ekintzez erditutako eta egokitu aratutako zure bizitza. Zinez, egindakoagatik, esandakoagatik eta izandakoagatik eskerrak asko.

Andoni Salamero Alberdi

### Xabier Leteri azken eskutitza

Kaixo, Xabier maitea:

Ostegunean jaso nuen zure azken eskutitza. Ez zenuen argi esaten larunbatean betirako joateko asmoa zenuenik, baina bai oso makal eta indarrik eta kemenik gabe zeundela —letran ere antzeman nizun nekea...—. Orain lasai, goxo eta bakean egongo zara zure aurretik joan diren eta hainbeste maitatu dituzunekin. Eta ez duzu ezer behar. Baina, nik hemen jarraitzen dut eta behar ditut zure hitzak. Tartetxo bat hartzen dugunean, erantzuidazu, mesedez. Eskura izango dituzu orain hordeiak, eguzki eta ilargi izpiak, euri tantak, tximistak, elur malutak... bertan idazteko, eta niri ipar edo hego haizeak ekarriko dizkit zure hitz preziatuak, badakitzu, Alkizako muino hori zeharkatuz...

Hainbeste kontu dut oraindik

zuri kontatzeko! Gogoan hainbeste bizipen hunkigarri! Baina, ez naiz gehiago lutzatuko; eskerrik eman nahi dizkizut berriro ere zure laguna izateko aukera eman didazulako. [...]

Egunen batean bilduko gara, Xabier. Muxu handi bat, bihotzetz.

Elena Laiz Sasiain. Anoeta.

### Xabier Leteri: Azkeneko ekitaldia gogoan

Agoniaren kanpai-hotzik ez da [entzun

Donostiako metropolian. Ezta turuta-soinurik ere ilunbe gaineko gela hitsean. Zalaparta da nagusi Anoetako estadioan. Gardabea Amarako kafetegietan. Semaforoi ostertza darraie gorri-berde-laranja arteko [jokoa. [...]

Etorriko dira gorapimenak laudorioak omenaldiak bat-bateko lagunak lagun izenekoak lagun izandakoak azken orduko lagunak lagunak adiskideak Hara, hara, hara... zenbat [klasetakoak garen! Maitasuna eta losintza Zurikeria eta elkartasuna

Gorrotz zituen keriak eta [keriakumeak. [...]

Gordeta gera bitez sentimenduen iturriko hitz biziokorrak. NI NAIZ... Bere baitan zetzan eta datza BAKEaren aldeko irrimiz [gordina! Jexux Aizpurua. Ataur.